

G O G O R K E R I A

Gaur ezta errez erdi-muñera jotea. Onek au diño ta besteak bestea. On-indarra, alan be, erdian datza. Aldizkariak eurak zelan bide zuzenez jokatu? Danok ez dogu ikuspegi bardiña, ta onek onela ikusten ditu gauzak, eta arek arela; ez, ez gagoz danok erdi-ertzeko une bat berean, ni sakonean eta zu gailurrean baimo. Nai ta ez, bada, eretxi ta jomuga ez-bardiñak izan bear.

Gaur-eguneko basarte nastu onetan —naiz politikan, naiz fede-arloan—, zelan jakin nok dauan errazoia? Politikari buruz zerbait esan edo idatzi ezkerro, laster jagiko yatzu bateon bat, esanez: «Urtaz ez egizu, arren, ainbeste idatzi; langilleen burrukak begoz langilleentzat, eta politika kontuak politikuentzat». Baina guztiok ez al gara erri? Gizarteak ez al dau erria osotzen? Politika ta gizarte-gaiak, ez ete dira erriak atontzeko?

Eleiz-gizonak, gotzaiñak, eleiztarrak, gazteak, ezkonduak... beste gairik ez al dau azaidu ta sakondu bear eleiz-barrutiko aldizkari batek? Egiaren jabe al dira onela pentsatzen dabena? Ala iasto-meta gainean tinkotzen gabez oiñak? Mundua obetu bearra daukagu; beraz beste gaiak be astindu bear. Kristau gareanez, Kristori begira jokatu bear dogu. Eta Kristok bere garaiko gai guztiak ikutu ebazan, ondo egoana goratuz eta txarto eritxona, ezeren bidur bari, txarto egoala esanik. Or eredia, ikasbidea!

Gaurko nastean gauzak argi ipiñi bear dira, edo-ta beintzat ortan alegindu. Gogorkeria, ezkerrekoa dala naiz eskumakoa dala, kristau darenentzat beti dozu txarra ta ez dago zuribiderik, ez lege-aldeetik ez kontzientzi aldeetik. Zelan-nai sortua izan, beti da iguingarri ta nakar. Goitik datorrena baldin ba'ua, askoz be gaitzesgariago nubbait. Indartsuaren gogorkeriak aularena sortzen. Eta olan, gorantz doan ke-biurrak lez, azken arriskutsua egiten.

Ez al diñoskue ezer oraintsu Donostia'n, Durango'n, Zornotza'n... jazotakoak? Gogor-taldeak ez al dabiltz alkar-muturka latzean, batak bestea jan nairik? Ori ete Kristok erakutsia? Nora goaz orrela? Nor da orren errudun? Gogorkeriak gogorkeria ez al dau gutartean sortzen? Ez sortu baka-rik; baita kutsadura ikaragarriak lez, azpi ta gain, dana loitu ta zitaldu ta likistu be.

Esitzen gaitun gogorkeri onen aurrean, zelan jokatu? Guztiok alkar artuz, era ta giro barri bat jalgi azo bear dogu errian. Etenbako burruka jokatzeko jaiok al gara euskaldunok? Maite al dogu geure erria? Ala ba dira bestelakoak be gure artean? Dana dala, alkar arturik, geure erriaren ona billa dagigun danok. Betoz ortara gure alegiñak eta erantzukizunak. Geure aitu-eziñak —politika kontuak eta abar— izkilluz eta muturka eratu nai izatea, basatikeri itzala litzateke.

Guretzako mundu barri ta era barri au, alan be, ezingo dogu sortu ez jarri, gizona bera, geu euskaldunok barriztu barik. Gizonok, geuk daukagu barriztu bearra; maitasunaren sua ixio bear dogu geure biotzetan, ez miñez bakarrik, arnas eta egitez baiño. «Gizona goratu», «gizona duindatu ta onako itz leun-gozaok sarri erabilli oi ditu gaur munduak. Gizona, orral tiño, maitasunak erabilli bear dau. Alkarregandiko maitasuna, Jainkoaren biotzean sorburua dauan maite-iturritik dariona izan bear dau txori-opil eta orpo euskal bizitza benetakoak. Orren gain bira egin bear dau giza bizitza osoak.

Egiaren eta zuzentasunaren alde jokatu bear dogu guztiok, Kristo bide erakusle dogula; ez gero Marx, Lenin edo Mao-Tse-Tung bakarrik: oneik gizonak ziran soil-soilki, Kristo barriz Jainko ta Gizon, egia ta zuzentasuna. Gizon barria maitasunaren ekarria izan bear dau nai ta ez. Egiari ta zuzentasunari dautsgun maite-sua ez da itz soilla bakarrik, aize gainean lez oin barik kokatua. Egiaren eta zuzentasunaren aurka doana, dana dan le kuan, salatu bear da, ta argi dirditsuan ipiñi jazoerak. Begoz beti disditsu egia ta zuzentasuna.